



2010/2/2ko prentsa-oharra

2009KO ETXEBIZITZA HUTSEI BURUZKO INKESTA

Euskal Autonomia Erkidegoan etxebizitzen % 7,7 hutsik zeuden 2009an.

Araba da proportzioan etxebizitza huts gehien dituen lurralde historikoa.

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak 2009ko etxebizitza hutsei buruz egindako inkestaren arabera, 2009an 74.289 etxebizitza zeuden hutsik Euskal Autonomia Erkidegoan, hau da, etxebizitza guztien % 7,7.

Arabak, 14.209 etxebizitza hutsekin, Erkidego osoko etxebizitza hutsen % 19,1 dauka, lurralde horretako etxebizitzen % 10. Gipuzkoan, berriz, 28.486 etxebizitza daude hutsik; Erkidego osoko etxebizitza hutsen % 38,3, eta Gipuzkoako etxebizitzen % 8,9. Azkenik, Bizkaian 31.594 etxebizitza daude hutsik, EAE osoko etxebizitza hutsen % 42,5, eta lurralde horretako etxebizitzen % 6,2.

Etxebizitza motari dagokionean, etxebizitza guztien % 3, guztira 29.511, denboraldi jakin baterako dira, eta gainerakoak, 44.788, % 4,6 alegia, jenderik gabekoak, urte osoan daude hutsik. Araban denboraldiko etxebizitzak, 7.457, % 5,2ra heltzen dira; eta inoiz jenderik ez duten 6.752 etxebizitzek, lurraldeko etxebizitza kopuru osoaren % 4,7 egiten dute.

Gipuzkoan denboraldiko 11.823 etxebizitza zeuden 2009an; hau da, etxebizitza guztien % 3,7. Gainera, jenderik gabeko 16.663 etxebizitza zeuden, etxebizitza guztien % 5,2. Bestetik, Bizkaian % 2 dira denboraldiko etxebizitzak, 10.230 guztira; eta hutsik dauden gainerakoak, 21.363, % 4,2, jenderik gabe daude.


Udalerrien tamainaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan hutsik dauden etxebizitzetatik % 21, 15.623 alegia, 2.500 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan daude. Beste % 23, 2.501 eta 10.000 biztanleko udalerrietan. Etxebizitza hutsen % 18,5, hau da 13.730 etxebizitza, 100.000 biztanletik gorako udalerrietan daude, hiriburuetan. Zehatzago esanda, Vitoria-Gasteizen 4.634 etxebizitza zeuden hutsik, udalerriko etxebizitza guztien % 4,7; Donostian, 3.578 etxebizitza, kopuru osoaren % 4,3; eta Bilbon, etxebizitza hutsen proportzioa % 3,6ra jaisten da, eta guztira 5.519 etxebizitza daude hutsik. Hutsik dauden gainerako etxebizitzen % 37,4 hamar eta ehun mila biztanle arteko udalerrietan daude.



ETXEBIZITZA, HERRI LAN
ETA GARRAIO SAILA
Zerbitzu Zuzendaritza
Estatistikarako Organo Berezia

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA,
OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES
Dirección de Servicios
Órgano Estadístico Específico

Viviendas por el tipo según el Territorio Histórico. 2009. (%)



Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Etxebizitza hutsei buruzko inkesta

Azkenik, hutsik dauden hiru etxebizitzatetik bat, % 34,1, 2008 baino lehenagotik daude horrela.

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Zerbitzu Zuzendaritza. Estatistikarako Organo Berezia
Donostia-San Sebastián kalea, 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Harremanetarako pertsona: Edurne Domingorena

Tel.:+34-945-01 97 12 Fax.:+34-945-01 64 07

Prentsa-oharrak interneten: <http://www.garraioak.ejgv.euskadi.net/r41-429/eu/>.

WEBGUNEA: <http://www.garraioak.ejgv.euskadi.net/r41-429/eu/>